



PASAIK BADU AURREKONTUA

Atzoko udalbatzarra oso garrantzitsua izan zen Pasaia eta pasaitarrontzat, azkeneko bi urtetan aurrekontu proposamenik aurkeztu gabe egon ondoren, atzo Udalbatzak 2008rako aurrekontua onartu baitzuen. Zoriontzeko moduko berria da, aurrekontua oso tresna garrantzitsua baita pasaitarron behar zehatzei aurre egitea ahalbidetzen duelako eta Pasaia aurrera egiteko jarraitu beharreko ildo estrategikoak zehazteko bide berri bat irekitzen duelako; herritarrekin batera, ditugun behar eta proiektu zehatzak definitzeko hausnarketa ireki dezagun.

Gobernu taldea osatzen dugunok harro gaude egindako lanaz eta lortutako emaitzarekin. Azken hilabete hauetan lan handia egin behar izan dugu udalean aurkitu genuen egoera okerra zuzentzen eta onartu berri dugun aurrekontua prestatzen.

Aipatu behar dut ere, onartu dugun dokumentua, jarraitzen zituen funtsezko helburuei leial mantendu bada ere, ez dela zehazki aurkeztu genuena. Alkatearen memorian esaten genuen ziur ginela proiektua hobetu zitekeela, eta horretara animatu genituen herritarrak nahiz talde politikoak. Gobernu taldeari dagokion lidergoa gauzatuz, gure proposamena konpartitu, ekarpenak jaso eta hauek landu ditugu, azkenean aurrekontua onartzeko akordioa lortuz. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet ekarpenak egin dituzten talde politiko zein herritarrei, eta nabarmendu nahi dut aurrekontua onartzeko akordioa lortzeko EAJk, EAK eta EAE-ANVk egin duten lana. Halaber, prozesu honetan galtzaile eta irabazleak egon direla pentsatzen dutenei esan nahi diet erabat nahasten direla. Aurrekontua bera ez da helburua, gure herriaren errealitatek abiatu, gure herria eraldatzeko tresna eraginkorra baizik. Hortaz, aurrekontua onartzeko akordioari esker denok gara irabazle, Pasaia eta pasaitarrok gara irabazle.

Esan bezala, aurrekontua helburuak lortzeko tresna da eta onartu berri dugun honek aukera berriak zabalduko dizkigu. Horrela, besteak beste, Plan Estrategikoa egitea ahalbidetuko du, Pasaia biziberritze prozesuak gidaritza izan dezan, norabide bat bidea egiteko, eta haren bitartez Pasaia eta pasaitarrek zehaztu dezagun nora bideratu behar dugun eta zein estrategia garatu behar ditugun.

Azpimarratzekoa da ere, Berdintasunerako Arloa garatzeko emango digun aukera. Gure gizarteko errealitate bati erantzuten dio, benetan errealitate dramatiko bati. Horretarako aurrekontuan jaso da Berdintasunerako teknikariaren lanpostuaren sorrera, emakumeak Pasaian bizi duen egoera aztertzeko eta politika aktiboak bultzatzeko, bereizkeriarik gabe bizi gaitezen eta genero bortizkeriaren arazo larriari aurre egiteko, hezkuntzan, gizarte eta kultur ekintzetan eraginez, eta lan prestakuntzan eta enpleguan, eta udaletxea bera egokitzetik abiatu.

Era berean, garrantzitsua da oso Demokrazia Parte-hartzailearen arloan egingo ditugun esfortzuak. Gure herria eraikitzeke erabakiguneak



Pasaian egon behar du eta pasaitar guztiok egin behar dugu denon artean. Benetan egungo egoerari irtenbidea aurkitu nahi badiogu, praktikara eramán behar dugu herritarrok dugun gaitasuna, eragiten diguten gaitan erabakiak hartzeko. Horretarako lehen urratsa komunikazio plan eraginkorra burutzea da, eztabaidaren eta erabaki partekatuaren kultura garatzeko.

Migrazio eta aniztasunaren arloak ere bere lekua du aurrekontu honetan, migrazio eta aniztasunaren politika orokorra abian jartzeko, erreal, arlo guztietan presente egongo dena, nazionala eta elkarrenganako errespetuan oinarritua.

Bestetik, behar sozialen artean gehien kezkatzen gaituenetariko bati erantzuna emango zaio, gure haur zein nerabe kolektiboen arazoei aurre egiteko partidei esker.

Euskarari dagokionez, ezinbestekoa dugun Plan Estrategikoa egitea ahalbidetzen da, gure hizkuntza nazionala normalizatzeko udal politikak nondik jo behar duen zehazteko eta gure jendartea eta eragileak lan horretan inplika daitezen.

Halaber, inbertsioen artean, San Juan eta Juan XXIII kaleen arteko igogailua, Mendiola kaleko urbanizazioa, San Pedro kaleko azpiegiturak lur azpian sartu edota Karmengo Ama eta San Pedroko haur eskolako teilatuak berritzeko kopuruak zehazten dira besteak beste.

Badago ere proiektuak idazteko partida garrantzitsua, hauen artean, Alabortzan aisialdirako gunea egiteko, Antxoko frontoia egiteko eta Donibanen egun udaletxea dagoen eraikuntzan kultur-etxea eta liburutegia egokitzeko.

Ezin ahaztu ere, herriko mantentze-lanak egiteko ardura duen sailari eskainitako kopuru handiak.

Beraz, argi dago aurrekontuaren onarpena benetan berri ona dela pasaitarrontzat; esan bezala, gure helburuak aurrera eramateko tresna garrantzitsu eta eraginkorra delako. Baina, esan dudán bezala, aurrekontua onartzea ez zen helburua, eta horregatik azpimarratu beharra dago prozesu hau ez dela hemen bukatu, aurrekontuaren onarpenarekin hasi besterik ez baita egin. Hemendik aurrera, tresna honek ahalbidetzen dizkigun proiektu guztiak martxan jarri behar ditugu; eta bidean irekita mantenduko da, hobekuntzarako proposamen guztientzat.

Bestetik, atzoko udalbatzarrean beste bi akordio garrantzitsu hartu ziren. Alde batetik, Donibanerako jendarte-, kultura- eta kirol-eraikinaren proiektua onartu zen. Urteak pasa ditu proiektu honek mahai gainean eta atzo, azkenik, behin betiko onespina jaso zuen. Bestetik, 3. adinekoentzako Etxe Tutelatuen araudiak behin-behineko onarpena jaso zuen. Beraz, 30 eguneko epea irekiko da proiektua jendaurrean egon eta alegazioak jasotzeko eta, halakorik egon ezean, behin betiko onartuta geratzeko da. Azpimarratzekoa da azkeneko hau aho batez onartu zela, eta aurrekoak soilik EAren abstentzioa jaso zuela, beste alderdi guztion aldeko bozka izan zuelarik.